

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

#### Diputatuen Kontseiluaren 65/2016 Foru dekretua, urriaren 4koa, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arautegia aldatzen duena

Azaroaren 27ko 27/2014 Legearen, sozietateen gaineko zergarenaren, bitartez Estatuak egingandako aldaketaren ondoren, merkataritza xedea duten sozietate zibil guztiek 2016ko ekitalditik aurrera sozietateen gaineko zerga ordaindu eta zerga horretan konturako diru sarrerak egin behar dituzte nahitaez.

Estatuko legeak ez bezala, Arabako indarreko foru araudiak ez ditu behartzen sozietate zibilak, merkataritza xedea duten ala ez gorabehera, sozietateen gaineko zerga ordaintzera eta zerga horretan ordainketa zatikatuak egitera; alabaina, sozietate horietako bazkideak behartzen ditu sozietateen gaineko zerga, pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga ordaintzera, kasuan kasuko pertsona motaren arabera. Pertsona fisikoak badira, PFEZa ordaindu eta zerga horretan konturako ordainketa zatikatuak egin beharko dituzte, sozietate horietan duten partaidetza ehunekoaren arabera, sozietateen jarduera ekonomikoaren ondorioz lortutako etekinengatik.

Tratu desberdina emate horrek eragin dezake bazkide jakin batzuek, hain zuzen, pertsona fisiko diren eta zerga egoitza Araban dutenek, baldin merkataritza xedea duen eta zerga egoitza lurralde erkidean duen sozietate zibil bateko kide badira, nahitaez konturako ordainketa zatikatuak egin behar izatea PFEZn sozietatean duten partaidetza ehunekoaren arabera, eta horren ondorioz konturako ordainketa bikoitza egingo lukete.

Hori dela eta, foru dekretu honen xedea da behar diren aldaketak egitea horrelako desdoikuntzarik gerta ez dadin eta etekin berberengatik konturako diru sarrera bikoitzik egin ez dezaten.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak eta Aholku Batzordeak horri buruz emandako txostenak ikusi dira.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

#### XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Aldatzea Diputatuen Kontseiluaren abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretua, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arautegia onartzen duena.

Bat. 108. artikuluarik paragrafo bat gehitu zaio. Hona hemen testua:

“108. artikulua. Errenta egozketaren araubidean dauden erakundeak

Errenta egozketaren araubideko erakundeek jarduera ekonomikoaren bidez lortzen dituzten etekinengatik, jaraunsle, bazkide, erkide edo partaideek banan egin behar dute zatikako ordainketa, bakoitzak erakundearen mozkinetan duen partaidetzaren proportzioan.

Ez da egin beharko sozietateen gaineko zergaren araubide orokorrean zergak ordaintzen dituzten sozietate zibiletako bazkideek lortutako jarduera ekonomikoaren etekinei dagokien ordainketa zatikaturik.”

#### AZKEN XEDAPENA

Lehenengoa. Indarrean jartzea.

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ondorioak.

Bigarrena. Gaitzea.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuari baimena ematen zaio foru dekretu hau garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko urriaren 4a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua*

**JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ**

*Ogasun zuzendaria*

**TERESA VIGURI MARTÍNEZ**